acceso 360

DOSSIER de NOTICIAS

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

REBOLD

ÍNDICE

PRENSA 2

RADIO 6

ONLINE 8

acceso 360

PRENSA

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

REBOLD

ÍNDICE

Fecha	Titular/Medio	Pág.	Docs.
17/01/23	«DUDARIK EZ: FUTBOLA LITERATURA HUTSA DA» / Berria	4	1
14/01/23	EUSKAL FUTBOL JOKALARIAK OSO IRAKURZALEAK DIRELA EGIAZTATU DUTE / Gara	5	1

berria
Berria
País Vasco
17/01/23
Pr: Diaria
Tirada: 250
Dif: 250
Cod: 153723183
Pagina: 40
Secc: CONTRAPORTADA Valor: 4.308,43 € Area (cm2): 610,7 Ocupac: 70,92 % Doc: 1/1 Autor: Enekoitz Telleria Sarriegi Num. Lec: 1000

ATZEKOZ AURRERA

Enekoitz Telleria Sarriegi

OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

«Dudarik ez: futbola literatura hutsa da»

Mari Mar Boillos • EHUko irakaslea eta ikerlaria

'Egungo euskal literatura eta futbola II' liburua aurkeztu dute. Boillos da koordinatzailea eta egileetako bat. Euren teorian sakontzen ari dira: «Futbola eta literatura batzen dituen mikrokosmos bat existitzen da».

Kultura eta literatura, eta bien arteko eraginak ikertzen ditu EHUko Laida taldeak. Taldeko kidea da Mari Mar Boillos (Bilbo, 1986), eta *Egungo euskal literatura eta futbola II* liburuaren koordinatzaile eta egileetako bat. Lehen liburua aurkeztu eta hiru urtera ondu dute bigarrena.

Futbolariek irakurri egiten dute?

Miren Billelabeitiak libururako egin duen ikerketan ondorioztatu dutenez, bai. Ikusi du, gazte guztiek bezala, futbolariek ere irakurtzen dutela, eta badituguta okerreko usteak horren inguruan. Ez dut uste horregatik harritu behar dugunik.

Idazleak-eta ez dira kirol orriak batera pasatzen dituztenak kultura sailera iritsi arte?

Ez, eta agerikoa da hori. Filologia hispanikoa ikasitakoa naiz, eta esan dezaket bi mundu horiek –literaturak eta futbolak– ez dutela elkar baztertzen. Kiroletako orriak irakur ditzakezu, eta, ondoren, beste batzuk. San Mamesen izan nintzen duela gutxi, eta handik irten eta Arriaga antzokira joan nintzen. Posible da bi mundu horietan mugitzea. Ez daude bananduta.

Bigarren liburua da. Zeintzuk dira atera dituzuen ondorioak?

Lehen liburuan ikusi genuen futbola eta literatura batzen dituen mikrokosmos bat existitzen dela, eta elkar aberasten dutela. Lehena bukatzean, erabaki genuen interesgarria zela horretan sakontzea eta bigarren ale bat ateratzea. Ikusi genuelako mikrokosmos horren barruan ekoizten diren liburu batzuk edo testu batzuk ukitu gabe gelditu zirela.

Aurreiritziak badaude oraindik?

Bai, eta hori da gure lanaren helburua: aurreiritzi horien kontra zeozer egitea. Ikusi dugu duela urte batzuk arte mikrokosmos hori ez dela aztertu, eta gure asmoa da orain ikusaraztea. Argi uztea, ebidentzien bidez erakustea, literatura eta futbola lotuta daudela, eta posible dela literaturan aditua izatea eta, aldi berean, futbolzalea izatea.

Jorge Valdanok *Cuentos de futbol* liburuan zioen esaldiari segika?

Hori da: «Futbola gustatzen bazaizu, beldurra galdu letrei; literatura maite baduzu, ez pentsa baloia objektu gaizto bat denik». Hori izan da behin baino gehiagotan azpimarratu dugun ideia. Horregatik jarraitu dugu horretan sakontzen.

Jendeak badaki futbol taldeak ere ari direla horretan sakontzen?

Bai, nik gehien ezagutzen dudana Athletic Club fundazioaren *Letrak eta futbola* proiektua da. Liburuan aztertzen dut gaia sakonago. Ikusten da, hitzaldiez gain, irakurketa, idazketa eta halakoak jorratzen dituztela, literatura futbol munduan zabaltzeko.

Horren fruituak dira Ainhoa Tirapu eta Oscar de Marcosen idazlanak?

Euren lanak irakurtzera animatu nahi nuke jendea, zeren oso lan interesgarriak egin dituzte.

Eneko Boveda jokalari ohiak ere parte hartu zuen aurkezpenean.

Miren Billelabeitiak egindako ikerketan parte hartu zuen, eta ikusi zuen Enekok asko irakurtzen duela eta literatura bere bizitzaren parte oso garrantzitsua dela.

Eta zurean futbola ere bai?

Aitortu behar dut txikitan futbola ez zitzaidala asko gustatzen, baina nire osaba Athletic zale amorratua zenez, peñen mundua barrutik ezagutzen hasi nintzen. Eta maitemindu egin nintzen.

Horrenbeste, non gaur egun Athleticeko peñen idazkaria zara?

Bederatzigarren urtea da jada. Hirugarren legegintzaldia [barrez]. Uste dut azkena izango dela. Lan handia da, baina oso aberasgarria.

Ramiro Pinilla, Bernardo Atxaga, Kirmen Uribe, Joan Mari Irigoien, Harkaitz Cano, Lutxo Egia, Karmele Jaio, Aritz Gorrotxategi... Askok agian ez dute jakingo horien lanetan futbolari buruzko erreferentzia asko agertzen direla?

Hori da aurreneko liburuan aztertu genuena. Eta konturatu ginen, adibidez, haur literaturan zer-nolako arrakasta izan duen gaitegi horrek. Azken batean, haurren eta gazteen artean literatura zabaldu nahi badugu, zergatik ez aukeratu haiei interesatzen zaizkien gaiak.

Eta futbolak ematen du aukera?

Dudarik ez: futbola literatura hutsa da. Metaforaz, protagonistez eta mitoz beteta dago. Azken liburu honetan, adibidez, Iribarren mitoa aztertzen du David Garcia Camesek: idazleek zelan ikusten duten Iribar.

Bigarren liburu horretan ipuinak eta komikiak ere aztertu dituzue. Horietako batzuetan maskulinitate ereduak ere aztertzen dira futbolaren bidez. Gaitegian ere izan da bilakaerarik, beraz?

Jose Antonio Morlesinek lan izugarria egin du futbolari buruzko komikietan agertzen diren maskulinitate eredu horiek aztertzen. Aditua da horretan, komiki horien ezaugarri grafiko eta narratiboak ikertu ditu, eta ikusi du horien bidez posible dela errealitate politikoa, tradizioa, kultura... aztertzea. Ziur Ramiro Pinillak futbolaren bidez bere eleberrietan agertzen zuen errealitatea eta orain komiki horietan aurkezten dena oso ezberdinak direla. Egon da bai bilakaera bat.

LOTSABAKO

Futbol jokalari bat? Julen Guerrero.
Idazle bat? Orain-txe, Emmanuel Carrere. Betidanik, Najib Mahfuz.
Futbolarekin lotutako liburu bat? Roberto Fontanarrosaren ipuinak.
Futbolarekin lotutako espresio bat? San Mamesen abesten dute: «Ene maite, Athletic...».

GARA
Gara
País Vasco
14/01/23
Pr: Diaria
Tirada: 250
Dif: 250
Cod: 153647955
Pagina: 26
Secc: CULTURA Valor: 8.889,28 € Area (cm2): 686,8 Ocupac: 80,63 % Doc: 1/1 Autor: Amaia EREÑAGA | BILBO Num. Lec: 1000

Euskal futbol jokalariak oso irakurzaleak direla egiaztatu dute

Unibertsitatean jakin bazekiten badirela futbol jokalari irakurzaleak, baina haien ohiturak lehen aldiz aztertu ondoren, zenbait aurreiritzi hautsi zaizkie. Athletic, Real, Eibar eta Amorebietako hamaika jokalariri –bost emakume eta zazpi gizon– egindako galdeketaren arabera, gizartearen batez bestekoaren gainetik daude, esaterako, maiztasunean: lauzpabost liburu irakurtzen dituzte urtean; batzuek, liburu bat hilean.

Amaia EREÑAGA | BILBO

«Futbolarien artean badira irakurleak, eta irakurle oso zaletuak ere bai. Horrenbestez, kirolarien, edo zehatzago, futbolarien irakurketa mailaz dugun iritzi negatiboa aurreiritzi okerra besterik ez dela esan dezakegu». Irakurketaren sustapenean aditua den Miren Billelabeitiaren "Futbolari eta irakurle" artikuluan irakur daitekeen esaldi horrek laburbildu ditzake Lehen eta Bigarren mailako hamaika futbolariri egindako ikerketaren emaitzak.

2020an EHUko Laida Ikerketa Taldeko partaideek kaleratutako "Egungo Euskal Literatura eta Futbola II" (EHUko Argitalpen Zerbitzuak) liburuan aurki daiteke ikerketa hau, beste zenbait eduki bitxiren artean: esaterako, Almudena Grandesen futbolari buruzko ipuin bat –madrildarra euskarara ekarria izan da lehen aldiz–, Iribarri buruzko saiakera bat eta "maskulinitate berrien" azterketa bat Unai Iturriaga eta Alfonso Zaicoren "Diamanteak, urrea eta ikatza" komikia abiapuntu hartuta.

Ane Campos, Eibar taldeko jokalaria. Jon URBE | FOKU

Aurreiritziak hausten Billelabeitiak jokalariek zer, zergatik eta nola irakurtzen duten galdetu zien. Iazko denboraldian Athletic, Reala, Eibar eta Amorebieta taldeetan jokatu zuten hamaika futbolarik hartu dute parte. Zehazki, hauek dira: Xabi Etxeita, Iñigo Orozco, Miguel Angel Atienza, Ane Campos, Malena Mieres, Ander Cantero, Manu Garcia, Ander Guevara, Mariasun Quiñones, Malena Mieres, Sara Navarro, Irati Uriarte eta Eneko Boveda. Batzuk gaur egun beste talde batzuetan ari dira; batek, Eneko Bovedak, jokalari izateari utzi dio. Deportivo Alaves-ekin saiatu ziren, baina ezin izan zuten. Dena den, Manu Garcia urteetan izan da Arabako taldeko jokalaria.

Eskarmentu handia du Maite Billelabeitiak. Azken urteotan Literatura Unibertsaleko eta Euskara eta Literaturako irakasle izan da Mungiako instituetan eta irakurketa bultzatzeko praktikari buruzko gogoetan aritu da lanean. "Norberak maite duena" (Pamiela, 2022) saiakeran, esaterako, urteetan ikasle eta gazteekin liburuen inguruko solasaldietan esandakoak hartu ditu aintzat. «Asko disfrutatu dut ikerketa hau egiten eta idazten», aitortu zuen atzo futbol munduan egindako azterketa honi buruz mintzatzean. Aurreiritzi asko, horien artean bereak propioak, hautsi ditu lanak: «Prestatuta nengoen, irakasle moduan, askotan izan dut horrelako apaltasun ariketa egin beharra».

Futbolariak aisialdiari lotutako generoak gustukoagoak izango zituztelakoan zegoen, baina... «Nobela beltza asko espero nuen, eta badago, baita nobela historikoa ere –eta badago hori ere, errazago irakurtzen delako–, baina harritu nintzen poesia ere agertzen delako, euskaraz ere irakurtzen dutelako batzuek, ez gaztelaniaz soilik, eta literaturako klasikoak irakurtzen dituztelako. Saiakera ere irakurtzen da, eta beste gai bitxi batuk: ekonomia, biologia, soziologia... Gogoan dut nola bati, harrituta, galdetu nion: 'Zer dela eta irakurtzen duzu hori?'. Esan zidan: 'Arlo horretan egin nituen nire ikasketak eta interesatzen zait'».

Eneko Bovedak, Athleticeko ikuskatzailea egun, 2022ko udan jokalari izateari utzi zion Zipren, eta gertutik ezagutzen du mundu hau: «Futbolari buruz aritzen garenean guztioi etortzen zaigu burura piramidearen gailurra. Baina futbolari mota asko daude: batzuk aberatsak, beste batzuk erdi aberatsak eta beste batzuk soldata xume bat jasotzen dutenak. Jokalari mota prototipo konkretu hori desmuntatu behar dugu, zeren logikoa da pentsatzea futbolarien artean, tabernari edo irakasleen artean bezala, denetarik dagoela».

ZENBAKIAK

Aurreiritziak hausten ditu futbolariek asko irakurtzen dutela egiaztatzeak: gehienek lauzpabost liburu urtean. «Batez besteko orokorraren gainetik dago, zeren batzuek hilean liburu bat irakurtzen dute. Eta hori edonorentzat asko da», esan du Maite Billelabeitiak.

ETA NON?

Eneko Bovedak: «Ni, une honetan, jokalaria ez naizenetik, sekula baino gutxiago irakurtzen ari naiz. Eta, zalantzarik gabe, futbolean asko irakurtzen da, jokalariek denbora dutelako: hoteletan denbora asko dago, bidaiak askotan luzeak izaten dira eta hegazkinean wifirik ez da egoten. Futbolariak ez dira martzianoak».

acceso 360

RADIO

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

REBOLD

Fecha	Titular/Medio
16/01/23	**RADIO EUSKADI - BOULEVARD - 07:46h - 00:01:19** #Cultura. Euskadi. La Universidad del País Vasco presenta el segundo volumen del Egungo Euskal Literatura eta Futbola II. El trabajo aborda el cuento ensayo literatura infantil y juvenil y el cómic relacionados con el balompié. Y entre los contenidos destaca el análisis de la iniciativa Letras y Fútbol, impulsada por la Fundación Athletic Club y que refleja que por qué y cómo leen los futbolistas vascos. Declaraciones de Miren Billelabeitia, Autora del libro.

acceso 360

ONLINE

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

REBOLD

ÍNDICE

Fecha	Titular/Medio	Pág.	Docs.
01/02/23	EUSKADI IRRATIA - FAKTORIA Zuhaitz Gurrutxaga: "Izango nintzateke zuhaitza, tarteka geldi eta lasai egoteko" / eitb.eus	10	1
19/01/23	Kalean da “Egungo Euskal Literatura eta Futbola II” liburua / Bizkaia Irratia	11	1
17/01/23	«Dudarik ez: futbola literatura hutsa da» / Berria.eus	12	1
16/01/23	Los futbolistas también leen: «Juzgamos a los futbolistas con un filtro diferente a otros jóvenes» / Radio Popular de Bilbao	13	1
16/01/23	LAIDA Ikerketa taldeak Egungo Euskal Literatura eta Futbola II liburua atera du / Europa Press	14	1
16/01/23	'Egungo Euskal Literaturea eta Futbola II' liburua aurkeztu dabe / bizkaie.biz	15	1
14/01/23	'Egungo Euskal Literatura eta Futbola II' liburua aurkeztu dute / elcorreo.com	16	1
13/01/23	Euskal futbol taldeetako jokalarien artean irakurle oso zaletuak daude, ikerketa baten arabera / Naiz.info	17	1
13/01/23	Presentación del libro Egungo Euskal Literatura eta Futbola II / Universidad del País Vasco	18	1

eitb.eus
https://www.eitb.eus/eu/irratia/euskadi-irratia/programak/faktoria/osoa/9094937/zuhaitz-gurrutxaga-zoritxarrez-beharrezkoa-dut-ezagun-izate-hori/?utm_campaign=General&utm_medium=RSS&utm_source=Irratia
Mié, 1 de feb de 2023 00:00
Audiencia diaria: 123.534 **Tipología:** online
Audiencia mensual: 1.306.755 **Ranking:** 5
Valor económico diario: 536,00 **Página:** 1

EUSKADI IRRATIA - FAKTORIA

Zuhaitz Gurrutxaga: "Izango nintzateke zuhaitza, tarteka geldi eta lasai egoteko"

Miércoles, 1 de febrero de 2023

FAKTORIA
"Herri txiki, infernu handi" saioari agur esatean gauza berriak probatzeko gogoa azaldu zuenez, hainbat proposamen egin dizkiogu "Faktoria" saioan eta erantzun mamitsuak eskaini dizkigu...

Bizkaia Irratia
https://bizkaiairratia.eus/podcast/kalean-da-egungo-euskal-literatura-eta-futbola-ii-liburua/
Jue, 19 de ene de 2023 13:46
Audiencia diaria: 1.000 **Tipología:** online
Audiencia mensual: 10.578 **Ranking:** 2
Valor económico diario: 30,00 **Página:** 1

Kalean da “Egungo Euskal Literatura eta Futbola II” liburua

Jueves, 19 de enero de 2023

13:41 2020. urtean kaleratu zan lehen atala | Kultura Lanaren egileak aurkezpen egunean / Euskal Herriko Unibertsidadea EHUko Laida ikerketa taldeak “Egungo euskal literatura eta futbola II”...

Berria.eus
https://www.berria.eus/paperekoa/1886/040/001/2023-01-17/dudarik-ez-futbola-literatura-hutsa-da.htm
Mar, 17 de ene de 2023 01:57
Audiencia diaria: 43.483 **Tipología:** online
Audiencia mensual: 54.998 **Ranking:** 5
Valor económico diario: 137,00 **Página:** 1

«Dudarik ez: futbola literatura hutsa da»

Martes, 17 de enero de 2023

Kultura eta literatura, eta bien arteko eraginak ikertzen ditu EHUko Laida taldeak.Taldeko kidea da Mari Mar Boillos (Bilbo, 1986), eta Egungo euskal literatura eta futbola II liburuaren...

Radio Popular de Bilbao
https://radiopopular.com/podcast/los-futbolistas-tambien-leen-juzgamos-a-los-futbolistas-con-un-filtro-diferente-a-otros-jovenes/
Lun, 16 de ene de 2023 11:01
Audiencia diaria: 1.779 **Tipología:** online
Audiencia mensual: 10.578 **Ranking:** 2
Valor económico diario: 30,00 **Página:** 1

Los futbolistas también leen: «Juzgamos a los futbolistas con un filtro diferente a otros jóvenes»

Lunes, 16 de enero de 2023

7:27 Entrevista sobre el libro Literatura eta Futbola | EgunOn Magazine Festival Letras y Fútbol / Fundación Athletic El grupo de investigación Laida de la UPV/EHU ha publicado su segundo libro...

Europa Press
https://www.europapress.es/euskera/noticia-laida-ikerketa-taldeak-egungo-euskal-literatura-eta-futbola-ii-liburua-atera-du-20230116103032.html
Lun, 16 de ene de 2023 10:30
Audiencia diaria: 257.436 **Tipología:** online
Audiencia mensual: 6.679.136 **Ranking:** 6
Valor económico diario: 1.225,00 **Página:** 1

LAIDA Ikerketa taldeak Egungo Euskal Literatura eta Futbola II liburua atera du

Lunes, 16 de enero de 2023

EHU EHU BILBO, 16 Ene. (EUROPA PRESS) - EHUko LAIDA Ikerketa Taldeko partaideek Egungo Euskal Literatura eta Futbola II argitaratu dute, beraien lehenengo liburua atera zutenetik 3 urte ondoren....

bizkaie.biz
https://bizkaie.biz/1673855797540
Lun, 16 de ene de 2023 00:00
Audiencia diaria: 1.142 **Tipología:** online
Audiencia mensual: 12.080 **Ranking:** 4
Valor económico diario: 30,00 **Página:** 1

'Egungo Euskal Literaturea eta Futbola II' liburua aurkeztu dabe

Lunes, 16 de enero de 2023

Baziran irakurleak jokalarien artean, baina horreen irakurketa ohiturak lehen aldiz aztertu dira. 2020an LAIDA Ikerketa Taldeko partaideek Euskal Literatura eta Futbola liburua aurkeztu eben....

elcorreo.com
https://www.elcorreo.com/zurekin/egungo-euskal-literatura-20230116111941-nt.html
Sáb, 14 de ene de 2023 12:18
Audiencia diaria: 522.080 **Tipología:** online
Audiencia mensual: 3.201.920 **Ranking:** 6
Valor económico diario: 2.553,00 **Página:** 1

'Egungo Euskal Literatura eta Futbola II' liburua aurkeztu dute

Sábado, 14 de enero de 2023

EHU Lehendabiziko liburuan aipatu ez ziren gaiak eta ikuspegi berriak eskaini dituzte edizio berri honetan 2020. urtean LAIDA Ikerketa Taldeko partaideek 'Euskal Literatura eta Futbola' liburua...

Naiz.info
https://www.naiz.eus/en/info/noticia/20230113/futbolariak-irakurle-zaletuak-direla-dio-euskal-jolakarien-artean-egindako-ikerketa-batek
Vie, 13 de ene de 2023 16:19
Audiencia diaria: 48.838 **Tipología:** online
Audiencia mensual: 244.357 **Ranking:** 5
Valor económico diario: 92,00 **Página:** 1

Euskal futbol taldeetako jokalarien artean irakurle oso zaletuak daude, ikerketa baten arabera

Viernes, 13 de enero de 2023

Unibertsitatean jakin bazekiten bazirela irakurleak futbol jokalarien artean, baina haien ohiturak lehen aldiz aztertzerakoan aurreiritziak hautsi zaizkie. Athletic, Erreala, Eibar eta...

Universidad del País Vasco
https://www.ehu.eus/es/-/presentaci%C3%B3n-del-libro-egungo-euskal-literatura-eta-futbola-ii?redirect=%2Fes%2Fcampusa%2Frss%2F-%2Fasset_publisher%2FMICMqglnC3fZ%2Frss
Vie, 13 de ene de 2023 13:18
Audiencia diaria: 102.894 **Tipología:** online
Audiencia mensual: 251.458 **Ranking:** 6
Valor económico diario: 682,00 **Página:** 1

Presentación del libro Egungo Euskal Literatura eta Futbola II

Viernes, 13 de enero de 2023

En 2020 los miembros del Grupo de Investigación LAIDA presentaron el libro Literatura Vasca y Fútbol. Tres años más tarde, publican Egungo Euskal Literatura eta Futbola II. Al igual que el primer...